

Itzulpena eta hizkuntz pedagogia

X. Mendiguren

Hizkuntza bizien irakaskuntzak nahikoa harreman badaezpada-koak izan ditu aspaldian itzulpenarekin –irakasten zen hizkuntza horretan zuzenean pentsaraztea helburua zuelako. Horretan oinarritzen zen itzulpenaren kontrako jarrera.

Guberina irakasleak, metodo audiobisual estruktura-globalaren teorilariak, behin eta berriz hitzegin du “erresistentziez” bi sistemaren artean, eta beronen ustez bigarren hizkuntzaren apendizaiak eragozpen nabariak gainditu behar izaten ditu ama-hizkuntzak garatu dituen erresistentziapsikolinguistikoen arabera; baliabide adierazkorren urritzea eta galera eta interferentzien eraginez bi hizkuntz sistemak piskanaka hondatzea gertatzen da azkenean. Horrela bihurtu izan da *latina* (edo beste edozein hizkuntza arrotz) zenbait ikasleri aurpegiratu zaizkien astunkeria estilistikoaren errudun.

Ikuspegi honetatik *bihurpena* (versión) eta batez ere *tema* ariketa “atzerakoitzat” baztertu izan dira. Hildako hizkuntzen kasuan nolabait ontzat eman zitekeen hau, erabat baztertu beharrekotzat jotzen zen “hizkuntza arrotzak” edo “biziak” ikasteko orduan, *gramatika-itzulpen* bidezko ikas metodoena ondare astun eta gainditu beharrezkoa ze-

la uste zelarik. Beraz, orohar gaur egun merkatuaren eraginez proposatzen diren metodoak "aktibo" eta bereziki "zuzenak" izendapenaren azpian sartzen direla esango genuke.

Metodo zuzenak

Metodo hau *aktiboa* eta *konkretoa* dela aldi berean esaten da. *Berezkotasun* ideiaaren inguruan garatzen da, hau da, ama-hizkuntzaren bitartekotzatik igaro gabe hizkuntza arrotzeko enuntziatuak jasotzen eta sortzen saiatzen da. Metodo hau ez da jartzen itzulpenaren aurka, ukatu egiten du. Izatekotan ere *egiaztapen* edo *froga* gisa erabil liteke ikastunitatearen amaieran "hizkuntza arrotzez" azalduko testua ikasleak behar bezala ulertu duen ala ez jakiteko.

Metodo audio-bisualei dagokienean ere itzulpena erabat bazterturik geratzen dela aitortu behar da.

Elebitasuna eta helburu didaktikoak

Gure irakaskuntzak, euskara eta gaztelaniari dagokionean D eta B eredueta elebidunak lortzea dela helburu aitortu behar da. Zenbaitek D eredueta elebakarrak atera nahiko lituzke ia, baina euskararen egoera sozio-linguistikoa "ekilingueak" ateratzea bera ere aski maximalista gertatzen da bizi dugun egoera diglosikoa kontutan izanik. Dena den, teoriarik behintzat bi hizkuntza hauetan erabiltze-gaitasun parekoa eskatzen zaio printzipioz gure ikaslearen sail handi bati, nahiz eta praktikan biek ez duten trataera pedagogiko berdina. Teoriarik *elebitasun koordinatu* nahiko litzatekeena, gauza eta izendatzen duen hitzaren artean uztarketa zuzen eta berezko bat lortzen duena, praktikan *elebitasun konposatu* (compound) bihurtzen da gehiegitan: hizkuntza bateko adierazleak bestera pasatzeko ama-hizkuntzako adierazien oinarri badaezpadako eta engainuzkoaz baliatzen dena. Itzulpen hau *transkodaketa* soil bihurtzen da.

Beraz, elebitasun koordinatu izan nahi duen honekin zer gertatzen den ikusita, zalantza handiak sortzen dira beronen bideragarritasunari buruz, eta baita metodologia honen egokitasunaz ere.

Badirudi ez dela onargarri "elebitasunezko ideal" horiekin hori eta horrenbestez aurrera jarraitzea, eskolako porrota areagotu nahi ez ba-

da eta gizarte-selekzio bat egiteko faktore bat gehiago bezala bigarren hizkuntza erabili nahi ez bada. Ladmiralet dionez, "hizkuntz irakas-kuntzaren helburua ez da elebidunak sortzea, gimnasiaren helburua eliteko txapeldungaiak sortzea ez den bezalaxe, eta kulturak bere alde-tik beste irakasle batzu sortzeko irakasleak prestatzea beste helburu-rik ez balu bezala. Irakasle guztien tentazioa bere irakasgaiak gehiegi baloratzea izaten da eta "hizkuntz irakasleak" ere ez dira libratzen honetatik".

Bistan dago, Ladmiralet ingelesa edo alemaniera ikasten duten frantsesei buruz dioen hau gure kasuan oraindik areagotu egiten dela euskaraz eta gaztelaniaz gainera ingelesa ikastera ikasleak behartzean.

Dagoeneko aski eztabaidatua, ideologizatua, baina gutxiago iker-tua, pedagogizatua eta kontrolatua dagoen gure nolabaiteko "elebi-tasun-helburuen" sail labaineen gehiegi sartu gabe, muga ditzadan lerro hauek soilik esatera *de facto* gure ikaslegoaren kopuru handi bat, O.H.O.aren azken aldera hiru hizkuntzaren sistemekin burruka bizian aurkitzen direla, behar adinako plangintza, eta bitartekorik gabe.

Emaitzak ezagunegiak ditugu masokismoan erori gabe behin eta berriz errepikatzen eta azaleratzen hasteko. Gure hezkuntz agintarien ahaleginak ozta-ozta heldu dira fenomeno guzti honen datu kuan-titatibo onargarri samarrak ematera eta esango nuke hotzikarak hartu-ko dituela alderdi kualitatiboei eskua sartzera ausar daitezen egunean.

Nolanahi den ere, *a priori* eta gainbegiratu bat azaletik emanda, gu-re haur gehienek lardaskatzen dituzten hiru hizkuntz sistema horien artean ordenu piska bat ezartzea eta mugak bereizten hasiko den plan-gintza batek itzulpena linguistika kontrastiboa, estilistika konparati-boa, etab. bezalakoek ekarriak integratu beharko dituela aitortzera au-sartzen naiz.

Hiru hizkuntz sistema aski urrundu horiek baliaziko dituen sub-jektua bakarra izaki, bistan dago orain artean baino indar ekonomia handiagoz planifikatu beharko direla hiru hizkuntza hauen jabekuntza edo lorpena bai metodologia eta irakasle desberdinen koordinazioari dagokionetik eta bai hiru sistemen arteko konparaketa eta batetik bestera (switching) aldatzeko gaitasunari dagokionean ere. Razio-nalizazio-prozesu hauek bideratzen ez diren bitartean ez dugu erraz lortuko hizkuntz erabilera kalitatezko edo adierazkorrik, eta gure

ikasleak –gehienak behintzat– interferentziazko itsaso nahasian be-soei eta mihiari eraginka naufragoen gisa aritu beharko dute.

Bestalde, kontutan hartzen badugu, European sartu garelarik, gero eta gehiago izango direla hiru ezezik lau bat hizkuntza menderatu beharko dituzten koadro, funtzionari eta enpresa-gizonak susma daiteke zenbaterainoko “babelizazioari” aurpegi eman beharko diogun, hizkuntza ahulenen kaltetan, hots, geure hizkuntza nazional eta ofiziala dugunaren galeratan mugaketak eta plangintzak ongi burutu eta bideratzen ez badira.